

FUNTSEZKO JARDUERAK

ZEIN DIRA EGIN BEHAR DITUZUEN GAUZARIK GARRANTZITSUENAK ZUEN PROIEKTUA FUNTZIONA DEZAN?

Gure proiektuaren arrakasta bermatzeko funtsezkoa da bezeroen beharrak ulertzea, aliantza sendoak sortzea, kalitate altuko irtenbideak eskaintzea, berrikuntzan oinarritzea eta kudeaketa bikaina egitea. Gauza hauek behar bezala betez, sektorean erreferente bihurtuko gara.

Enpresan oso garrantzitsua da produkzioa, edo hobeto esanda eskaintzen dugun **zerbitzua**. Ekoizpena eta zerbitzua funtsezko zutabeak dira Berriklinikan, elkarrekin hortz-klinikei konponbide osoak eta kalitatezkoak eskaintzeko aukera ematen dizkiegu. Ekoizpen eraginkor batek bermatzen du proiektu bakoitza modu optimoan egingo dela, kalitate- eta jasangarritasun-estandar altuak betez.

Zerbitzua, bestalde, funtsezkoa da balioa sortzeko eta gure bezeroekin epe luzeko harremanak eraikitzeko. Zerbitzu integral eta pertsonalizatua eskaintzen dugunez aholkularitza, teknologiaren ezarpena eta bezeroak erakartzeko estrategiak barne, klinikei merkatu lehiakor batean bereizten eta hazten laguntzen diegu. Behin proiektua guztiz planteatuta eta osatuta dagoenean, beste atal ezinbestekoa bezeroak izango dira. Gure enpresan noski **bezeroak** dira **lehentasuna** eta haiei esker arrakasta lortuko dugu. Horregatik ziurtatu behar gara modu ezberdinetan proiektuaren informazioa zabaltzen eta ahalik eta klinika gehienetara heltzea.

Beste ezinbesteko faktore bat **elkarrekin** lortzea izango da. Kontaktuan egon behar gara eskainiko ditugun zerbitzu guztiak ahalbidetzen dizkiguten enpresa edo markekin gure lana aurrera eramateko.

Arazoak konpontzea funtsezkoa da Berriklinentzat, gure enpresaren arrakasta hortz-klinikei irtenbide eraginkorrak eta arinak ematearen mende dagoelako. Sor daitezkeen erronei aurre egitean eta konpontzean, gure zerbitzuak etengabe hobetzea eta gure bezeroen itxaropenak betetzea bermatzen dugu.

Gainera, arazoak konpontzeak berrikuntza sustatzen du, eraginkortasuna hobetzen du eta klinikek beren espazioak eta prozesuak eraldatzeko dugun gaitasunean duten konfiantza

indartzen du. Ebatzitako arazo bakoitzak hazteko, ikasteko eta lider gisa finkatzeko aukera ematen digu hortz-kliniken hobekuntza integralaren sektorean.

Proiektua funtzionatzeko ezinbestekoa da gure enpresa ezagutzeko moduak baloratzea eta modu erakargarri batean gure helburuak aurkeztea. Honetarako aurretik aipatu ditugun marketing metodo ezberdinak erabiliko ditugu, baina horretarako garrantzitsuena proiektua guztiz antolatuta egotea da eta puntu guztiak argi eta lotuta egotea, gero lasaitasunez bezeroei aurkeztu ahal izateko. Hauei dagokionez garrantzitsua da webgunea eta instagram kontua eguneratuta egotea, gure enpresak dituen berrikuntzak aurkezteko eta bezeroak ezagutzeko.

Gaur egungo mundu digitalean, **plataforma eta sareko jarduerak** funtsezkoak dira gure ikusgarritasuna eta eragina handitzeko. Sare sozialetan eta gure plataformetan aktibo egoteak aukera ematen digu gure zerbitzuen berri emateko, komunitatea sortzeko eta etengabeko harremana izateko gure bezeroekin eta kolaboratzaileekin. Gainera, sareko jarduerari esker, feedback azkarra jasotzen dugu eta merkatuaren joerak hobeto ulertzen ditugu. Horrela, gure proposamena une oro egokitu eta hobetu dezakegu.